45. zenbakia - 2005eko abendua

GETARIARRON TOPAGUNEA

# artzape

ARTZAPE KOLOKAN!!

] EPAIKETA ATZERATU EGIN DUTE]

AFIZIONATU MAILAKO PILOTA TXAPELDUNAK ]

Imanol Elorza

# Hainbat urte artea eginez

SOKOA
Giro alaia eta jatorrak
Elkano 17. Tel.: 943 140 952

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

AGERRE · 943 140 446
AIZPURUA · 943 140 696
AKARREGI TXIKI · 943 140 726
AMEZTOI · 943 140 918
ARREGI · 943 580 835
BASA-LORE · 943 132 231
EIZAGUIRRE · 943 140 303
ETXEDIO · 943 140 085
GAINTZA · 943 140 032
GAÑETA · 943 140 174
REZABAL · 943 580 899
SANTARBA · 943 140 452
TALAI BERRI · 943 140 750
TXOMIN ETXANIZ · 943 140 702
ULACIA · 943 140 973
ZUDUGARAI · 943 580 386
GETARIAKO TXAKOLINA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
14 07 04

ITSAS MENDI
gutiziak
Kaia z/g
Tel.: 943 140 993
Mugikorra: 649 947 855
20808 GETARIA

POLITENA
TABERNA JATETXEA
Pintxo bereziak · Bokata labekatu berriak · Bereztasuna menutan
Kale Nagusia, 9-11 · Tel. 943 140 113 · 20808 GETARIA

Santander
Central Hispano

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

ABEXA
Jatetxe Dendari Elkartea

ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

K
KAIA JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel. (+34) 943 899 100 Fax (+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRIA AUXILIARRAK (INDAUX) S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132 E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

Abenduak 18an ospatutako Gabon kanten emanaldia

artzape
45. zenbakia
2005eko
abendua

]5/Inkesta: Tabakoaren lege berria

]6-7/Getarian zer berri?

Epaiketa bertan behera geratu da

]8-11/Elkarrizketa: Imanol Elorzarekin

Hainbat urte artea eginez

]12-15/Erreportajea: Artzape kolokan!

]18/: Harpidetza kanpaina: Iehiaketa

]20/Katraponako petriletik: Ixabel Isasti

] 23/Akordatzen: Guda Zibileko Gabonak

artzape
Eskualtzeta kulturgunea
Kriskitaneko Iturrigaina

Tel: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amets Etxabe eta Izaskun Larrañaga [lan taldea] Ane Azkue, Josune Urresti, Irantzu Ezenarro, Jon Illarramendi, Kepa Iribar, Zigor Saizar, Josune Uzin [kolaboratzaileak] Julene Iturbe, Ion Arakistain, Maria Isabel Lazkano, Aiheru eta Peio [bertsoa] Iñaki Olaizola eta Iker Aranguren [maketazio berria] Vicente Dávila [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1.075 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

# ] gutunak

Zure gutuna Artzapen argitaratzea nahi baduzu, Txeruko postontzian utzi, Eskualtxetara ekarri edo artzape@topagunea.com helbidera bidali zure izen-abizenekin. Gutunak gehienez 200 hitz izan beharko dira eta luzeagoak direnak mozteko eskubidea izango du Artzapek. Ez dugu testu iraingarririk onartuko eta Artzapek ez du bere gain hartuko argitaratzen diren iritzien gaineko erantzukizunik.

### Tasak gora doaz etengabe

Komunikabideetan zerbait agertu bada ere, batzuen eta besteen interesak medio, oro har Udaleko hiru alderdik (PNV, EA eta Aralar) tasei buruz hartutako erabakiek ez dute oihartzun handiegirik izan prentsan. Kalean eta getariarren artean ordea, bestelakoa izan da erreakzioa. Izan ere, PNV, EA eta Aralarrek tasen igoerei onespena eman izanak (ura %50 garestitu da...) getariar guztion poltsikoetan eragin zuzena izango baitu.

Iparraren iritziz, ulertezina eta onartezina da erabaki hori. Gaur egungo politika neoliberalek pribatizazioa, tasen igoera... bultzatzen badute ere, ezkertiarron eginbeharra eta zeregina da herritar guztion interes eta ongizate maila lortu eta hobetzea. Ura eta zaborra Udalak eskaini beharreko oinarrizko zerbitzuak diren heinean administrazioak berak jasan behar luke zerbitzu hauen kargarik handiena, eta ez herritar guztion poltsikoek. Gainera, legeak berak ere onartzen du, ura eta zaborra bezalako zerbitzu hauek ere Udalarentzat "defizitarioak" izatea, hauek baitira gizaki ororen bizi kalitatea bermatzeko, besteak beste, Udalak eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak.

Tasen igoera gogor horrek herritarrei zuzenean eragiten dielako, Udalen kontrolpeko zerbitzu publiko eraginkorren alde gaudelako, herritarrei eta beraien ongizatea bultzatu eta bermatzeko diruaren kudeaketa sozial eta egokiagoaren alde gaudelako... Iparrak ez zuen onartu aurreko urtean PNV-EAk proposaturiko tasen igoera eta, arrazoi bera izan dugu aurten ere tasen igoera bidegabeari EZETZ esateko, nahiz eta berriro ere Udalean bakarrik geratu.

*Iparra Herri Bilgunea*

### Astakeria beti astakeri

Balenziaga Fundazioa dela eta, gogora ari gara aspaldi honetan, norbere iritziak ematen. Pentsatu nahi dut borondate onean ari garela denak.

Aldamar palazioa Getariako herriaren altxor preziatua izanik, ene ustez zein arinki jokatu duen Udalak. Isilik eta ezkutuan daramaki prozesu guztia herritarren iritzirik eskatu gabe. Oroitzen naiz, arrapaladan, karpa handi baten magalean "ertzainek" babesturik edalontziak beterik eskuan, topa eginez zelebratu zuten egun handia (eurentzat) bai kanpotar bai herritar askok, izen eta guzti hor dira argazkian ezagunak.

Egun Aralarreko zinegotziek diotenez, Udalean egindako azken aldaketarekin esku pribatuetan egotetik esku publikoetara pasatu da eraikina. Fundazioari gestioa bakarrik uzten zaio. Honek txikitan ikasitako ipuin bat ekarri dit gogora. Asto zahar beltza zuriz pintatu arren asto zaharra da eta ez mandoa. Hau da, Museoaren proposamena astakeria bat bada, nahiz eta publikoa izan jabetza astakeria izaten jarraitzen du. Esplika dezatela Aralarkoek zertan aldatu den astakeria.

Bestalde, Berroeta Aldamar elkarte publikoak ez ote du konkurtso baten bidez erabaki behar nori eman gestioa. Hau da, zuzenean eman zaio Balenziaga fundazioari publikoa den gauza bat. Badakit, Fundazioak duen gestio taldeari aurre egin dion talderik ez dela osatu, baina formak gorde behar direla iruditzen zaigu. Español erregea, Loiolako gestorea, alkate ohia, Giventxi jostuna, kubanoa... ekipo paregabea da dudarik gabe. Baina konkurtsoa eginez baldintzak jartzeko aukera dago. Euskaraz aritzea bere lanetan, etabar, nik baino hobeto Aralarko zinegotziek jakingo dituztenak. Beraz, obra monstruo hau jauntxo askoren eskutan daukate, euren menpe. Bera, palazioa, tristeziaz beterik lur jota ezinezkoa duelako Getariako haurrekin jolastu.

Iritziak direla eta, beste gauzatxo bat aipatu nahi dut. Artzapeko azken zenbakian Eneko Alegria eta Aintzane Ezenarroren firmarekin agertzen da beste askotan bezala "gezurra" hitza hitzetik hortzera. Nire uste apalean, garaia da zerbait gehiago argitzea hitz potolo horren zergatia. Beti eta beti gauza bat errepikatuz nahaste borraste gehiago ene buruan. Ezkertiar izaera ez dio norberak bere buruari aitortzen, bizitzan zehar agertutako jokaerek agertzen dute zein den ezkertiarra eta zein ez. Nik garbi dut aspaldi honetan zeintzuk diren ezkertiarrak, zeintzuk dauden jauntxoen astakerien aurrean eta zeintzuk ez. Zeinek jasaten dituen jauntxoen ertzainen gezur eta irainak eta zeinek ez. Horrela luze jarrai nezake baina alferrik da. Herritarrei irekiak izan behar duten Udal Plenoak ere lapurtzen ari dira. Gainera beraiek dira irainduak. Benetako ezkertiarren arteko "laguntza" ez da eskatu behar, eman egiten da ezer eskatu gabe, hori baita argi jokatzea. Baina, Getariako Plenoetan ezin da ezer argitu. Alkate jauna aulkitik altxatzen den momentuan bere atzetik doa artalde guztia ezkutuko gelara, inork txintik esan gabe txintxo-txintxo. Ikusgarriak benetan azken bi plenoak, ezkutuan bai dagoela argitasun gehiago jende aurrean baino. Herritarrentzat lanean baina herririk gabe. Horrela gauzak, ez dut maite autotxokerik, ez oilar jokorik, ez ahari jokorik ere. Deporte arinagoak aurkitu behar ditut. Lagundu!

Nahi duzuen guztirako,

*Juanita Goikoetxea*

Artzapen gutun orria,
sorpresaz irakurria,
bertso dotore jarria.
Ai! Laxaldeko loria,
jakin behar dezu ordia,
Iker ta Iñakik beti ematen
dutela aurpegia.

Hiru bertso kurioso,
bidali zituen oso,
ta ezkutuan daukagu norbait
itxuraz eroso.
Bere itzalpetikan so,
lotsaren mende akaso,
baina horrela ez da egingo
Getaian famoso.

Artzapen bertso olatu
batek gaitu harrapatu,
ez genuen nahi urperatuta
luzaro geratu.
Bertsoak badu enkantu,
nahi duenak animatu,
eta herriko bertso atalaiaz
guztiok gozatu.

*161*

# ] inkesta

## Zer iritzi duzu urtarriletik aurrera martxan jarriko den tabakoaren gaineko legeari buruz?

Neri ondo iruditzen zait, nahiz eta erretzaileek gaizki dagoela esan. Zaila izango da erabakia hartzea, baina erretzaileek badute aukera kanpoan erretzeko.

**Josu Sustaeta**

Legea ondo dagoela iruditzen zait, baina zaila da. Nik erretzea debekatzen duten taberna batera joan beharrean, erretzen uzten duen taberna bat bilatuko nuke, edo bestela kalera erretzera. Taberna bakoitzaren esku dago erabakia.

**Gema Ortiz**

Ongi iruditzen zait erretzaile ez garenon onerako. Ni erretzailea izan banaiz ere, orain ez dut erretzen eta keak molestatu egiten dit, baina nire bezero gehiengoa erretzailea da eta tabernan erretzeko aukera emango dut.

**Adiuntz Ibarbia**

Oso gaizki. Tabernariarentzat legea ez da brometako gauza. Erretzen uzten badugu, 18 urtetik beherakoek ezingo dute sartu ere egin eta bestalde, erretzaileak direnak agian ez lirateke sartuko.

**Xatur Iribar**

## Artzapetik begira

**Julene Iturbe**

**Amak eta haurrak elkarrekin lo egitea osasungarria eta segurua da (1. zatia)**

Californiako unibertsitatean, McKenna eta Mosko-k amaren eta haurraren loaren prozesuei buruzko ikerketak egin dituzte 1986tik. Honetarako bi taldeen arteko desberdintasunak behatu dituzte, lotan dauden bitartean pasatzen dituzten fase desberdinak aztertuz: Haurrarekin lo egiten duten amak eta berezita lo egiten duten haurrak.

1. Ama eta haurrak elkarrekin lo egiten dutenean erabat sinkronizatuta daude.
2. Lotiak fisiologikoki lotuta daude: bakoitzaren arnasketak eta mugimenduek besteari eragiten diolarik. Ametsetako planu desberdinen artean bat mugitzen denean bestea ere hala egiten da.
3. Bi ametsen patroi hauek aldian aldiko esnaerak daudela adierazten digute (loaren axaleranzko planoak ageri dira gero berriz lo sakonera egiteko). Non dago honen garrantzia? Haurrak amaren estimuluei erantzuten dionean, arnasketa ohitura bat izango dute ziklo bakoitzean. Horregatik, ama maila batetik bestera mugitzan denean, haurra ere berarekin batera mugitzen da; modu honetara, gau ilunean nabigatzen ikasten duelarik. Haurrak jaiotzen denean duen aspektu neurologikoa hain osatugabea da, kanpotik jasotzen duenaren eraginez, gau osoan lo lasai egiteko ikasten duelarik.
4. Ikerketa hauetan ikusten da haurrak amari begiratzeko eta amarengana mugitzeko joera dutela. Honekin CO2-aren arazoaren beldurrarekin egiten dugu topo baina haurraren aurpegian CO2- ak ere on egin diezaioke, ingurunean halako aldadetak adimena aktibatzen duelako berak ere arnasteko.
5. Lotan azala azalarekin kontaktuan egoteak onurak dakarzkio haurrari; bihotz erritmoa estabilizatzen duelako, negarra eta apneak gutxituz.
6. Baina ikusten den gauzik harrigarriena, amaren atentzioa gehitu egiten dela da: beraien haurrekin lotan zeuden haurren amek besteak baino bost aldiz handiagoko babesa adierazten zuten gauero haurrari begiratzera esnatzen ziren amek baino: musuak ematen zizkioten, ikutzen zituzten, lekuz aldatzen zituzten, estalkiak ondo jarri, behar zuenean lasaitu... batzutan kontzientziz baina beste askotan konturatu gabe.


HORTZ KLINIKA
MOZÈS HIRIART eta SOULIER
ODONTOLOGOAK
Ortodontzia orokorra · Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
Periodontzia · Protesia
Endodontzia · Hortz estetika
Implantologia
Etxetxiki kalea, 1 behea. Tfnoa: 943 130 278 ZARAUTZ

Astillero
Antonia Iribar
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Optika ZARAUTZ
Optika ZARAUTZ
Getariako jubilatuei
%15eko deskontua
(karneta erakustea gomendatzen da)
Tel.: 943 834 401
Kale Nagusia, 12 - 20800 ZARAUTZ

# Epaileak hiru getariarren epaiketa atzeratzea erabaki du eta auzia luzatuko da

## "Arazo tekniko" baten ondorioz abenduak 20ko epaiketa ez zen ospatu

Abenduak 20rako hitzartuta zegoen epaiketa momentuz bertan behera geratu da, Mikel Elorza abokatuaren esanetan "arazo tekniko" bat medio, fiskalak errekurtsoa aurkeztuko du eta ondorioz auzia luzatu egingo da.

Fiskalak epaileak azaroaren 3an hartutako erabakia, hau da gertakariak falta izaerara izan daitezkela ziona, eta ez delitu, ez zitzaiola "forma egokian" helarazi argudiatu zuen. Ertzain bati puntuak eman behar izanak delitu izaera duela adierazi zuen eta ez falta. Epaituen abokatuaren arabera honekin argi geratu da fiskalak ez duela espedientea behar den bezala irakurri, puntuak jaso zituena getariar bat izan zelako eta ez ertzaina.

**Hainbat herritarren babesa jaso zuten epaituek. Arg.: Urola Kostako Hitza**

Hala ere, fiskalak bere eskaerari eutsi eta epaileak epaiketa bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Epaileak erabakia aldatuz gero, Auzitegi Probintzialak hartuko luke erabakia eta Haritz Alberdi epaituetako baten esanetan dena hutsetik hasi eta epaiketa luzatzeaz gain, epaia okerragoa izango litzateke. Azken honen esanetan, "hau horrela izanez gero, PNV, fiskala eta poliziaren errepresioaren ondorioa delako da. Bestalde, eskertzekoa izan da herritarren babesa, eta jasotako 237 sinadurak".

# Idoia Arrietak Getariari buruzko liburu bat idatzi du

**Idoia Arrietak aurkezpenean egon zirenei liburuak sinatu zizkien**

Abenduaren 20an, Idoia Arrietak idatzitako eta Getariako Udalak argitaratutako "Angel de Gorostidi y Guelbenzuren Getariako albisteak" liburuaren aurkezpena egin zen Udal Aretoan.

Aurkezpenera herritar nahiz kanpoko jende ugari bildu zen. Idazlearen aurkezpena hasi baino lehen, alkateak zenbait hitz eskaini zizkion eskerrak emanaz. Idoiaren hitzek adierazi zutenez, "aspaldi hasitako lana da Gorostidiri buruz idatzitako liburu hau eta hasierako ikerketa haietan herriko hainbat jendek lagundu ziola aitortu zidan".

Liburua lan historiko bat da; bertan, Gorostidik Getariari buruz idatzitako zenbait eskuizkribu biltzen dira. Gorostidiren argazki moduko bat dela azpimarratu zuen Idoia Arrieta historialariak.

"Angel de Gorostidi eta Guelbenzuren Getariako albisteak" liburua hiru zatitan banatuta dago: hasteko, Gorostidiren biografia irakurtzeko aukera dugu; jarraian, azterketa historiko batekin topatu gaitezke, eta, liburuari amaiera emateko Getariako kronikak irakur ditzakegu.

Liburuaren aurkezpena eskerrak emanaz amaitu zuen Idoiak, eta batez ere bere senar Jon eta seme-alaba Julen eta Libe eskertu zituen, lan hau egiterakoan, eurengandik jaso duen babesagatik.

Liburua udaletxean eros daiteke 12 eurotan. Aurkezpenera gerturatu zirenek liburua bertan erosteko aukera izan zuten eta bide batez idazleak zenbait hitz idatzi zizkien sinadura eskatu zutenei.

Liburu honen ildotik, Udalak urtarrilaren 14rako "Getaria ezagutzen" izeneko unitate didaktikoa antolatu du. Getarian ibiltzeko lagungarri izango den gida bat prestatuko da. Lehiaketa izango da eta parte hartzailea Getariako historian sartuko da Angel Gorostidire eskutik.

## Kirol Astea ospatu zen Sahatsaga kiroldegian

Azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitartean Kirol Astea ospatu zen herrian. Hau aitzakitzat hartuta, zenbait ekitaldi antolatu ziren: kirol ekintzak, hitzaldiak, erakustaldiak...

Azaroak 29an, surfari buruzko emanaldi bat eskaini zuten eskolako zinearetoan. Larunbaterako, azaroak 30erako, hainbat ekitaldi antolatuta zeuden, besteak beste: Erika Larrañagak eskainitako judo erakustaldia eta, Josu Odriozola eta kanpoko beste hiru arraunlari ergometroan ikusteko okasioa izan genuen; ezbehar baten ondorioz, azken hau bertan behera geratu zen. Gauza bera gertatu zen jarduera fisikoa eta osasunari buruzko hitzaldiarekin; kasu honetan hitzaldia entzutera inor joan ez izana izan zen arrazoia. Spinning erakustaldiaz gozatzeko aukera ere izan genuen

Kirol asteari amaiera emateko, herriko zenbait haur eta gaztetxok Agorregiraino bizikletazko txango bat egin zuten.

# Hirugarrenez jarraian Iribar anaiak irabazle pilotan

Azaroaren 3an, eguerdiko kanpaiekin batera, aurtengo Gazte eta Helduen Esku Pilota Txapelketako finalei hasiera eman zitzaien.

Lehenengo partida, aurreneko ligaxkatik kanpo geratu ziren bi bikoteek jokatu zuten; Erramun eta Zenekortak Gorka Areizaga eta Iñaki Ruizen aurka, hain zuzen ere. Erramun eta Zenekortak alde handiarekin hasi zuten partida, baina gazteek aldea murriztea lortu zuten zaharrenen nekeaz aprobetxatuz.

Giro polita sortu zen herriko frontoian, baina eguraldiak ezin eutsi, eta euriak finalak kiroldegian jokatzera behartu zituen.

Hirugarren eta laugarren postuak Andima Iribar eta Kepa Larrañagak Esnal anaien aurka jokatu zuten partidan erabaki zen. Azken unerarte, emozioz beteriko partida eskaini zuten kiroldegira hurbildu ziren ikusleentzat. Partida gogorra jokatu ostean, Mia auzoko Joseba eta Eneko Esnal anaientzat izan zen hirugarren postua.

Aurten ere, hogeita sei bikoteren artean, Oier eta Josu Iribar sailkatu ziren finaleko partida jokatzeko; hirugarren urtea da pilota txapelketa hau jokatzen dela eta aurreko bi urteetan ere Iribar anaiak suertatu ziren garaile. Finalerako sailkatu zen beste bikotea Uraitz Etxeberria eta Iker Esnalek osatzen zuten. Txapeldunek lan bikaina egin zuten eta hasieratik nabarmendu ziren markagailuan. Etxeberria eta Esnal, Iribar anaiek egindako abantaila mozten saiatu ziren, baina finaleko partida 22-7an geratu zen.

Beraz, hirugarren urtez jarraian, Oier eta Josu Iribar Gazte eta Helduen Pilota Txapelketako garaile suertatu ziren.

**Oier eta Josu Iribar txapela jaso ondoren.**

# Herriko jubilatuak Santa Luzia eguneko azokan izan dira

Santa Luzia egunean Zumarragan ospatzen den azokara joan ziren herriko hainbat jubilaku Arrantzale Zaharren Elkarterak antolatutako irteera bati esker.

Abenduak 13an, berrogei bat pertsona gutxi gora-behera, goizeko 09:00etan, herriko frontoian bildu ziren azokara zihoan autobusa hartzeko asmoz. Zumarragako azokan igaro zuten goiza eta honen ostean, Azpeitian dagoen Kiruri jatetxera joan ziren bazkaltzera.

UDAL 21 TALDE
UROLA KOSTA

## Getariako ekintza plana erakitzen

Abenduak 12an Getariako Agenda 21en egitasmoan barne herritarren foroa bildu zen.

Bileraren helburua Ekintza Planaren zirriborroa aurkeztea eta ekarpenak jasotzea zen.

Herritarren multzo bat bildu zen Alondiga zaharrean eta Ekintza planeko helburu nagusiak (lerroak), helburu zehatzak (programak) eta ekintzak aztertu ziren.

Getariako Ekintza Planak arlo desberdinak jasotzen ditu: ingurumenekoak (adibidez baliabide naturalak, ura, hondakinak, energia....), sozialak (hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kultura...) eta ekonomikoa (herriko sektore ekonomikoak, lana....)

Bilera honetan hainbat gai aztertu ziren. Hurrengoak hiritarrek egindako ekarpen batzuk dira:

-"Getariak herri bezala badu material asko arrantza munduaren inguruan, biltzeko modukoa. Nolabaiteko museo bat edo formaren bat eman beharko litzaioke material horri".

- "Turismo Plana diseinatzea garrantzitsua da"

- "Azken urteetan gazte asko kanpora joan da, herrian bizitzeko aukerarik ez dagoelako. Herrian geratuko balira, herria haziko litzateke eta zerbitzuak osatuko lirateke. Etxebizitzari lehentasuna eman behar zaio"

- "Telefoniako antenak urrunago jartzeko azterketa bat egin beharko litzateke. Oraindik herrigunetik gertuegi daude".

INFORMAZIO GEHIAGO:
Tel: 943 89 00 45
www.urolakosta.org
agenda21@urolakosta.org

## IMANOL ELORZA:

# *"Margotzeak erabat betetzen nau"*

**Herritarron artean, eta urteak aurrera joan diren heinean, hain ospetsu bilakatu den pintore eibartarrarekin berriketan jardun dugu. Zenbait bitxikeria eta pasadisuren artean, itsasoarekiko duen grina aitortu digu.**

**Orain dela zenbat urte sartu zinen arte munduan?**

Orain dela urte asko; hamabi bat urterekin hasi nintzen baina hasieratik ez nuen "oleoreliebe" deituriko teknika hau erabili, plumilazko marrazkiak egiten nituen. Eskolan ibiltzen nintzenean ere marrazki onak egiten nituela esaten zidaten. Ni futboleko atezaina izan naiz, eta, nire ustez, atezainak beste mundu batean bizi gara, beste mentalitate bat dugu. Gaztea nintzela pintura klaseetara joateko esaten zidaten, baina nik ez nuen nahi; ez nuen nire lanean inork muturra sartzerik nahi. Pinturako maisu izan nintzenean ere gauza bera esaten nien ikasleei: barruan zutena azaleratzeko eta ez nik esandakoa.

**Nondik sortu zitzaizun "oleoreliebe" teknika erabiltzen hasteko ideia?**

Bi iturri nagusi ditut. Bata, Brasilen igarotako urteetatik datorkit. Han egon nintzenean erakusketa asko ikusi nituen. Erabat txundituta geratu nintzen bertako indigenek egiten zituzten maskarekin; harrigarriak ziren erabiltzen zituzten koloreak, sinestezina iruditu zitzaidan. Kolore horiek teknika berezi batez lortzen zituztela esan zidaten. Tximeleten hegoez baliatzen ziren horrelako koloreak lortzeko: tximeleten hegalak egurrean txertatzen zituzten. Bigarren inspirazio iturria Euskal Herrian bertan aurkitu nuen, zehazki, Ekaingo kobazuloetan. Bertan aurkitu zituzten marrazkiak egiterako garaian, egileek nirearen oso antzekoa den teknika erabiliko zuten ziurrenik.

**Zein pauso jarraitzen duzu "oleoreliebe" motako koadroak egiteko?**

Nik, lehenengo, proiektu bat egiten dut eta lana edo paisaiaren arabera perspektiba desberdinak ateratzen ditut. Proiektuak, lehen, tinta txinarrarekin egiten nituen eta geroago errotulagailuak erabiltzen hasi nintzen. *Escuela de Armerican* ikasi nuen eta, bertan, bost perspektibak ateratzen erakusten ziguten; nik beste seigarren bat ere jartzen diet nire lanei. Proeiktua amaitu ostean, egurra eta burdinarekin hasten naiz lanean. Hauek petrifikatu egiten ditut; hori egin ostean esmerila edo hare gogorrarekin gastatu egiten ditut eta margotu aurretik antioxidantea ematen diet. Margotzerako garain, normalean, hamabi edo hamabost bat oleo erabiltzen ditut.

**Lan handia izango du teknika honek, ezta? Zenbat denborako epean egiten duzu honelako koadro bat?**

Denbora koadroaren arabera izaten da. Lehenengo marrazki bat egin behar izaten dut; esaterako, Maria Kristina antzokiaren marrazkia egiten zortzi hilabete pasa nituen eta koadroa erabat amaitzeko berriz, bost urte. Badira denbora laburragoan egin ditudan koadroak ere, adibidez, Getariako Pie-Piako tunela hiru urte eta erdian egin nuen. Koadro txikiak sei hilabete edo urte baten buruan egiten ditut.

**Zuk erabiltzen duzun teknika honek kuriositate handia sortuko du ba mundu osoan zehar?**

Bai. Teknika mota hau nik bakarrik egiten dut, edo hori esaten dute behintzat; eta horrek kuriositate handia sortzen du. Munduko lurralde askotatik etorri dira nik lantzen ditudan perspektibak aztertzera: Japoniatik, Tailanditik, Ameriketatik... ingineru eta arkitektu ugari etorri dira nire lanak ezagutzera. Egia esan behar badut, lanak ezagutzera baino perspektibak aztertzera etortzen dira gehienak. Behin, Japongo Naganoko Unibertsitateko irakasle bat etorri zen perspektibak ezagutzera.

## "Ikusi ditudan museo eta erakusketa guztietatik ikasi dut zerbait"

**Gaiak nola aukeratzen dituzu?**

Batez ere enkarguz egiten dut lan, eta gaia bezeroak eskatzen duenaren araberakoa izaten da normalean. Nire lan askotan itsasoa ikus daiteke; gazte-gaztetatik mirestu izan dut itsasoa.

**Ikasketa berezirik egin al duzu arte munduan lan egiteko?**

*Escuela de Armerian* ikasi nuen gaztetan; han perspektibak ikasi nituen. Bost perpektiba erakusten dira, baina nik seigarren bat ere gehitzen diet nire artelanei. Bizitzan museo eta arte lan asko ikusi ditut, eta horiek izan dira niretzako irakaslerik hoberenak.

**Eta, zein izan da zuregan eragin gehien izan duen museoa?**

Ikusi ditudan museo eta erakusketa guztietatik ikasi dut zerbait. Bidaia asko egiten ditut Parisera edo Bartzelonara bertako erakusketak ikustera.

Imanol Elorza pintore eibartarrak koadro handi nahiz txikiak margotzen ditu.

# "Hamazazpi urte nituenean irabazi nuen nire lehenengo saria"

**Saririk jaso al duzu?**

Hamazazpi urte nituenean irabazi nuen nire lehenengo saria, baina ez pinturan, plumilan baizik. Eibarren antolatu zen lehiaketa batean parte hartu nuen, eta plumilazko kategorian irabazle suertatu nintzen. Horrek izugarrizko poza eman zidan maila oneko artista asko baitzegoen txapelketa horretan. Saria jasotzera joan nintzenean ez zuten sinesten hamazazpi urteko mutiko batek horrelako marrazki bat egin ahal zezakeenik; txunditua geratu ziren.

**Miresten duzun artistarik ba al da?**

Bai. Renoiren lanak asko gustatzen zaizkit; inpresionista frantsesak oso gogoko ditut. Picassoren lanak ere atsegin ditut. Artista zaharragoen artean, berriz, Goya eta Velazquez asko gustatzen zaizkit, batez ere Goya errebeldea zelako eta beste bide batzuk jorratu zituelako.

**Eta zer iritzi duzu gaur egungo artistei buruz?**

Batzuk oso onak dira, beste batzuk, berriz, txantxetakoak iruditzen zaizkit. Esaterako behin hiru ordutan egindako koadro bat ikusi nuen: balde batean pintura ipini eta paper edo zapira bota, amaieran izenburu polit batekin izendatu eta kito. Hori batzuentzat artea da. Bakoitzak nahi duena edo ahal duena egiteko eskubide osoa du, baina niri, artelanen bidez, nire sentimenduak azaleratzea gustatzen zait.

**Familian baduzu zure pausoak jarraitzen dituenik.**

Bai, nire alaba Ima ere artea eginez bizi da; biok maite dugu arte mundua. Orain Katalunian jarri dugu erakusketa bat bion artelanekin.

# "Renoiren lanak asko gustatzen zaizkit; inpresionista frantsesak oso gogoko ditut"

**Posible al da artea eginez bakarrik bizitzea?**

Ni behintzat horrela bizi naiz. Orain ere baditugu enkargu batzuk, bai nik eta bai alabak ere; lana badaukagu. Nire koadro batzuk garestiak dira, hau lanaren araberakoa da, koadro batzuk egiten denbora asko pasa dut eta lan asko ere izan dute zenbait artelanek. Lan asko duten koadroak, noski, garestiak dira, eta horrelako koadroak saltzea zailagoa da gaur egun.

**Lurralde asko ezagutuko dituzu, ezta?**

Beno, batzuk bai. Frantzian askotan izan naiz, batez ere Parisen. Suitza eta Alemania ezagutzeko aukera ere izan dut, eta, hiru urtez Brasilen bizi izan nintzen. Trokelista lan egitera joan nintzen, eta hiru urte bertan igaro nituen.

**Eta, zenbait leku ezagutu ondoren bitxikeriarik izango duzu ba guri kontatzeko, ezta?**

Ba bitxikeria arraro bat etxean, Getarian, gertatu zitzaidan. Nire erakusketa ikustera etorri diren pertsona guztien artean, laurogei eta hamazazpi pertsona koadroen aurrean zorabiatu egin dira. Hasieran, honek izugarri arduratzen ninduen eta medikuei kontsultazea erabaki nuen. Arazoaren zergaitia okulista batek esan zidan eta *Vertigo de Minier* duten pertsonek nire koadroak ezin dituzte ikusi. Okulista honek hau esan zidanean lasaitu egin nintzen, eta nire koadroen aurrean inor berriz zorabiatuz gero badakit zer gaixotasun duen. Beste bitxikeria bat hemengo, Getarian dudan erakusketan gertatu zitzaidan baita ere. Egun batean Jorge Oteiza eskulturgilea zena etorri zen erakusketara bere lagun batzuekin. Nik egiten nituen koadrokin txundituta geratu zen; baita erabiltzen dudan teknika eta koadroek duten perspektibekin ere. Inoiz ahaztuko ez zaidan esaldi bat esan zidan orduan: "Señor Elorza, tengo que reconocer que usted está más loco que yo". Izugarrizko grazia egin zidan ateraldiak. Harrezkero eta bera hil arte, oso lagunak izan ginen. Oso ondo eramaten nintzen bai berarekin eta bai bere emaztearekin ere.

**Nolakoa da Imanol Elorzaren lanegun normal bat?**

Nik ez dut ordutegi finkorik; urte guztian lana izaten dut eta urte guztian oporrak izaten ditut baita. Gauean ere lan egiten dut; goizeko hirurak arte geratu izan naiz. Gustoko lana dudanez orduaren nozioa galdu egiten dut. Egiten dudana lana da, baina nik ez dut lan moduan hartzen; asko maite dudan zerbait da. Koadroak margotzeak erabat betetzen nau.

# Getariak Artzape behar al du?

**Bosgarren urtemugaren atarian, 45 zenbaki jorratu ditugu, 45 elkarrizketa baino gehiago, 45 erreportaje baino gehiago, hainbat iritzi artikulu, hainbat berri, bertso, zorion agurrak, lehiaketak... Izan da zer esana eta oraindik ere bada zer kontatua, baina aurrera jarraitzeko arazo larriak ditugu: alde batetik, diru-laguntzak Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik asko murriztu dira, eta bestetik, lan taldea finkatzeko arazoak ditugu.**

**Ezker aldean Artzapeko lehen zenbakia. Eskuin aldean azkenengoa. Bien artean kontu ugari landu dira ia bost urtetan.**

**Erakunde publikoetatik jasotzen dugun diru-laguntzak %40 egin du behera azken urteetan.**




## Hastapenak

*Artzape* aldizkaria bi helburu nagusirekin sortu zen, alde batetik, herri informazioa landu eta , eta bestetik, euskararen normalizazio prozesuan euskaraz irakurtzeko ohitura sustatzea. Era berean, herritarrei ere eman zaie aukera bertan parte hartzeko, bai gutunen atalean, eta, baita, bakoitzak bere gaiak eta esperientziak kontatzeko zutabetan ere hala nola; ipuinak, dieta kontuak, gaztetxeko mugimendua, herriko berriak, inkesta, iritzi artikuluak, zorion agurrak eta abar luze bat. Azken finean, *Artzape* getariarron topagune bilakatzea nahi izan dugu.

2001eko maiatzaren 25ean sortu zenetik izan dugu zer esana, zer kontatua... Hilero, urtean 11 zenbaki, bost urtean 45 zenbaki: 45 elkarrizketa, 45 erreportaje, hainbat iritzi artikulu, historia... Baina bosgarren urtemuga betetzera goazen honetan Artzape kolokan dagoela esan behar dugu. Umil-umil hasi ginen lanean, Getaria aldizkaria duen herri txikiena da, eta, hori, erronka handia izan da guretzat. Hazia erein eta honek eman zuen bere sustraia, sustraia errotu eta orain ura falta du handitzeko eta mantentzeko.

Euskal Herri mailan aldizkarien gorakada nabarmena izan da; euskara arlo eta maila guztietan jorratzen da, gero eta etxe gehiagotan izaten dira herri aldizkariak... baina hedapena edo zabalkundea aurrera doan heinean diru murrizketak ere nabariak dira.

## Diru-laguntzak behera

Aldizkaria sortu zenetik gaur egunera diru-laguntza murrizketa handiak jasan ditu *Artzapek*. Gaur egun, *Artzapek* %30eko autofinantziazioa du (harpidetza eta publizitate bidez), gainontzeko dirua erakunde publikoetatik jasotzen du (Udaletik, Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik). Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dugun diru laguntzak lehenengo urtetik hona %40ko murrizketa jasan du, eta, Udalarena berriz (4.000 euro dagokion K.P.I-arekin), mantendu egin da. Diru murrizketen arrazoia azken urteetan hedabide gehiago sortu direla da (prentsa idatzia, telebistak...) baina diru partida igo beharrean mantendu edo zertxobait igo eta denen artean banantzen da.

Kontuan izanda %40ko diru murrizketa dugula (4.000 euro gutxiago urteko aurrekontuan) lan talde egoki bat osatuz eta lan asko eginez (harpidetza kanpaina erraldoiak, publizitate bidez...) gehienez ere %20ko tartea ziurtatuko genuke eta beste %20ko tartea Udalaren esku utzi dugu. Egunotan Udalarekin hitz egiten ari gara eta eskaera egin dugu: urteko diru laguntzan 2.000 euro gehiago eskatu ditugu eta erantzunaren zain gaude.

%40ko zulo hori estali ezean nahiko lan izango dugu aurrera jarraitzeko edo hobeto esanda ezin izango dugu aurrera jarraitu.

## Harpidetza kanpaina

*Artzapek* egun diruz laguntzen duten (urtean 18 euro) 135 harpide ditu. Hasieran aurreikusitako helburua 200 harpide osatzea zen, baina egun, aurrera jarraitzeko 400 bat harpide beharko lirateke gutxienez. Azken urteotan egin dira harpidetza kanpainak lehiaketen bidez, mahaiak jarriz... baina emaitzak ez dira onak izan, esaterako amaitzera doan urte honetan hiru harpide baino ez dira egin.

## Lan-taldea

*Artzape* aldizkari osatzen dugun lan taldeari dagokionez, eskertzekoa orain arte Artzapen parte hartu duten guztien itzelezko lana eta eskainitako denbora. Baina aldizkariak ondo funtzionatzeko lan talde egonkor eta finko bat behar du.

## Aurrera begira

Aurrera jarraitzeko lehenik eta behin dirua behar dugu Udalari egin diogu eskaera eta erantzunaren zain gaude. Gainontzean, harpidetza kanpainak direla, publizitatea dela bada zer egina eta zer burutua.

Sarrerako pertsiana igotzeko eta *Artzape* hilero-hilero herriko etxe guztietako buzoietan jasotzeko ahalegina denon esku dago. Salba dezagun ARTZAPE, bizi gaitezen euskaraz!

# Artzapek Jaurlaritzari eta alderdiei

**Abenduaren 2an Donostian egindako elkarteratzea. Hedabidetako zenbait ordezkari bildu ziren bertan Eusko Jaurlaritzak egindako diru murrizketak zabaltzeko. Ezker aldean lehena Ane Azkue Artzape aldizkariko ordezkaria.**

Honako idatzi hau Artzapek eta tokian tokiko hedabideek Eusko Jaurlaritzari eta alderdiei helarazitako idatzia da. Abenduaren 2an Donostian

"Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko" Eusko Jaurlaritzak 2005ean banatutako diru-laguntzetan murrizketa nabarmena jasan dute Topagunean federatutako Euskara Elkarteek kudeatutako tokiko hedabideek. Urtetik urtera errepikatzen den joera da hori. Hauek dira gaur azaldu nahi ditugun kezkak:

Diru-laguntzen zenbatekoaren berri azaroaren 17an izan genuen (Aldizkari Ofizialean abenduaren 1ean agertu da), baina oraindik ez dakigu noiz jasoko dugun egokitutako diru hori.

Hedabideentzako diru-saila ez da aspaldian hazi. Kultura Sailaren 2006. urterako aurrekontu proposamena ere ez da nahikoa. Euskarazko hedabideekin bete nahi ditugun beharrak ezin dira 200.000 euro gehiagorekin estali.

Topagunean federaturiko EAEko tokiko aldizkariek jasotako diru-laguntzen zenbatekoaren kopuru erlatiboa %6 murriztu da 2002. urtetik, urteroko KPIa kontuan hartuz, honek eragin handiago izan du *Artzape* bezalako aldizkari txikietan.

Zabalkundeari dagokionez, aldizkariek 2002an baino etxe gehiagotara heltzea lortu dugu (zabalkundea %11 hazi da). Egun, Topagunean federaturiko tokiko aldizkariek 150.000 aleko zabalkundea dute, Artzapek 1.075 alekoa du, Getarian eta kanpoan banatzen da.

Tokiko telebistei dagokienez, une erabakigarrian gaude. Jaurlaritzako Kultura Sailak banatzen duen diruarekin euskarazko tokiko telebistek ezin diote digitalizazioari aurre egin, ez eta telebista berririk sortu. Gaur egun tokiko telebistei eskainitako 150.000 euroekin ezin da

behar bezalako euskarazko tokiko telebisten sarerik osatu, are eta gutxiago, diru hori euskara hutsezkoak ez diren telebistekin partekatzera behartuta bagaude.

Kezka hauek eraginda, ondokoak dira alderdi politikoei eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariei egin nahi dizkiegun eskariak:

- Tokiko hedabideok ziurtasuna behar dugu lanean jarraitu ahal izateko. Tokiko hedabideok euskaldunon etxeetara tokiko informazioa euskaraz eraman nahi dugu, ahalik eta gehienengana helduz, euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura bultzatuz eta autonomiaz diharduten euskarazko erreferente informatiboak sortuz. Sektoreak laguntza egonkor eta jarraitua behar du, gure eginkizuna jarraitua eta epe luzekoa baita.

**Artzapeko bi langile buru-belarri lanean. 2001. urtea geroztik *Artzape* hilero-hilero etxe guztietan banatzen da, baina horretarako lan ugari egin behar da.**

- Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen diru-laguntzen banaketaren politika aldatu beharra du. Urtetik urterako aurrekontuak aztertuta, datuek sektore batzuetan gero eta diru gutxiago aurreikusten dela esaten digute, eta ez da nahikoa euskararen garapenean urrats esanguratsuak emateko.

- Euskararen erabilerak duen garrantzia aurrekontuan isla dadila eskatu nahi dugu. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian erabileraren garrantzia azpimarratzen da, baina orain arte ez da aurrekontuetan islatu. Euskaraz ekoizten dena zabaltzeko bideak eta helburu horretara zuzendutako irizpideak behar ditugu.

- Urtetik urtera diru-laguntzak jasotzeko jasaten ari garen atzerapen larriak berriro ez daitezela errepikatu ere eskatzen dugu.

– Azkenik, Kultura Sailak nahi badu, tokiko hedabideok prest gaude, beti bezala, egoera aztertu eta konponbidea elkarrekin aurkitzen laguntzeko.

**Gaur egungo diru baliabideekin Artzapek ezingo du aurrera jarraitu.**

**Pertsianak gora edo behera egin denon esku dago, eta, horretarako, herritar guztion laguntza ezinbestekoa da**

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA, s/n Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

Elisabet Irigoien
ALBAITARITZA Kontsulta
NATURALA
Txanda aurretik eskatu
943-14 01 11 / 619-30 20 64
Nagusi kalea 24. GETARIA

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-200909

OSTOLAZA ANAIAK
Taller mekanikoa, Soldadura eta kalderería.

# Azterkosta 2005

Aurtengo ikasturtean ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sustatuta, ITURZAETA HERRI ESKOLAKO 5. eta 6. mailakoak, GAZTETAPE HONDARTZA aztertzera joan gara "Azterkosta ingurumen-hezkuntzako" programaren bidez.

Azterkosta 2005eko goiburua "EZAGUTU ETA MAITATU" da. AZTERKOSTA programa, Europako Ingurumen Hezkuntza programaren Euskal Autonomia Erkidegorako egokitzapena da.

Proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzak kostaldearen alderdi hauek aztertu behar ditu: ezaugarri morfologikoak, fauna, landaredia, eta baita kostaldeari kalte egiten dioten ingurumen arazoak ere (olio eta petrolio isurketak, zaborrak, itsasertzaren okupazioa eta giza jardueren ondorioak...).

5.mailakook Zumaia aldeko zatian ibili ginen, 6.ekoak, berriz, hondartzatik KETARRIrantz doan haitz-tartea aztertzen aritu ziren. Gauza mordo bat aurkitu genuen eta, bide batez, garbiketa egiteko aprobetxatu genuen. Ondoren, taldeetan banatuta, uraren laginak potetxoetan hartu eta gure inguruko ura zein baldintzatan dagoen aztertu genuen (pha, nitritoak, nitratoak, oxigeno disolbatua...).

Aipatu behar da zaborra ere jaso genuela: zakar pote bat, tutuak, xiringak, txankleta bat, itsasoak ekarritako sokak... Haitzetan galipota pixka bat gelditzen da, baina orokorrean, garbia dago. Ura garden-gardena ikusten da, baina benetan hotza dago, gu kostan izan ginen egunean, 12º bakarrik markatzen zuen termometroak.

Bildu ditugun datu guzti horiek guztiekin txosten bat osatu da eta INGURUGELA-CEIDAra bidali dugu; honekin txosten orokorra bat osatuko dute.

Irteera hau bertan dauden animalia, landare eta algen inguruan zerbait gehiago ikasteko ere aprobetxatu dugu.

Arratsaldea oso motza egin zitzaigun, oso ondo pasa baigenuen.



LAISTER
PVC leihoak
Tel./Faxa: 943 13 22 03
Tel.: 943 83 49 25

HURRENGO ERAIKUNTZA
Itsasora begira
1,2,3 eta 4 logelakoak
Garajeak
Tel.: 943 14 03 01
www.playagaztetape.com
PlayaGaztetape
Eraikina

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak
Tel.: 649 95 16 09 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia
katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
ERRETEGIA
kaia gainean. Tlf. 943 140 539

elan euskadi
ONGD - GGKE

# Kubako kanpaina, urteko balantzea

**Amaitzeran doan** 2005 urtea oparoa izan da Elan Euskadik Kubara hainbat gauza bidaltzeko antolatzen duen kanpainarentzat. Hiru kontainer bidali dira Karibeko irlara. Honez gain, zaborrak biltzeko bi kamioi lortu dira, Markinako Udalak emanda biak. Bata jada Habanan dago lanean, bestea laister irtengo da Bilbotik.

Kubako haurrak jaialdi bat ospatzen

Kontainerrei dagokienez, lehenengoa apirila amaieran bidali zen. Material informatikoa, bulegoetakoa, jostailuak, janaria, etab. igorri ziren bertan, 9.229 kilo guztira, 14 elkarte, talde, ikastetxe, etab.etan banatu dena. Maiatzean bidali zen bigarrena, batik bat koltxoi, somier, almohada eta antzekoekin. Habana Vieja auzoan dagoen Nuestra Señora del Belen komentura iritsi ziren hauek, eta iaz Kuba zigortu zuen hurakanean kaltetuak izan zirenen artean banatu dira. Azkenik, hirugarrena abenduan irten da, 9an, eta Kubara 24an edo 25ean iritsiko da. Bertan, 9.294 kilo material igorri da: zapatak, arropak, gurpildun aulkiak, bizikletak, botikak, eta Hernanin jaso ziren tailerreko zortzi makina, hauek Bigarren Zikloko ikastetxe batera eramango dira.

Elan-Euskaditik eskerrak eman nahi dizkiogu Kubako kanpainan parte hartu duten Udal, enpresa, denda, ikastetxe, taldeko bazkide, eta orohar lagundu duten guztiei, bai materiala bilduz, eta baita kontainerren gastua ordaintzeko dirua eman dutenei ere.

**Jardunaldiak prestatzen**

Kontzientziazioaren alorrean Elan Euskadik urtean zehar egiten duen ekintzarik aipagarrienetakoa urtarrileko jardunaldiak izaten dira, *Getaria eta Hirugarren Mundua* izenekoak, aurten urtarrilaren 23tik 27ra izango da. Hamairugarren ekitaldi honetako hitzaldiak lotuta daude dagoeneko, nahiz ez den oraindik bakoitzaren data zehaztu. Hauek izango dira gaiak: gure herria izango da egun batean protagonista, Elanen proiektuen azalpena egingo da eta Mexikon kooperante gisa egon diren Onintza Bernal eta Begoña Arrietak beraien esperientzia kontatuko dute. Beste batean, Saharari buruzko ekitaldia egingo da, bertako egoera azaltzeaz gain hango literaturaren adibideak jasoko dira. Afrikan jarraituz, egun batean Marokorekin lana egiten duen Zarauzko ONG bat izango da gonbidatua. Hitzaldiei dagokienean, azkena, "Pobreza cero" kanpainari buruzkoa izango da; Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinadora da honen arduraduna Euskadi mailan, eta Elaneko kide den Ana Mokoroa dabil lan talde horretan buru belarri sartuta. Azkenik, Herri Eskolako haurrekin jolas kooperatiboekin ekintza bat egingo du *Indarrez* taldeak.

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
faxa: 943 140 604
Mobila: 652 775 061
E-posta: eugeniouranga@hotmail.com

ASKIZU
Udal aterpetxea.
Ingurugiro eskola.
Erreserbak: 943 833 641
Eteo osoa: 200 €/eguna
Asteburua: 320 €
Askizu Auzoa z/g 20808 Getaria - Gipuzkoa

# Harpidetza kanpainako irabazlea

Egin zaitez ARTZAPEKO HARPIDEDUN!!!

Herritar nahiz herritik kanpo bizi direnen laguntza ezinbestekoa da aldizkaria aurrera eramateko. Horregatik, abenduaretik batera, Artzape diruz laguntzen dutenen artean zozketa bat egingo dugu. Aldez aurretik eskerrik asko guztioi.

Zozketa egun ahal izateko, SAHATSAGA KIROLDEGIAK eskainita, lagun bati opari-saskia bidaliko diogu. Saskian, Realak ikusteko joateko bi sarrera, zozkatuko ditugu. Baita Udalak emandako Getariari buruzko 3 bideo eta Aberbatzuren beste bost diska ere.

OLARRA datorren zenbakian irabazlea nortzuk izan diren argitaratuko dugu.

Aurreko lehiaketako irabazlea: Uxue Etxaniz



EUSKARAZKO PRODUKTUAK EROSI

KONTSEILUA

gizarte ekintza

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# Ximiren xarma

Laster urte bete izango da Belengo estalpetik pasa eta herria agurtu ondoren, herritar batzuei muntaia hura jasotzea tokatu zitzaigunetik. Bukatzear geundela, horra geure sorpresa: lasto artean mugimendu arraro batzuk sumatu genituen; sagu bat zen, polita bezain ederra: mutur borobilduna, ile asko eta goxoa, kolore zuri eta beixa. Nahiz eta begi erakargarri haiekin begiratu, bistan zegoen tristuraz betetako sagu hark ez zuela ihesteko asmorik. Gaixo zegoela zirudien, edo agian hankaren bat puskatuta eduki zezakeen; baten batek zapaldu ote zuen agian? Komentario asko egin genituen gure artean, baina esanak esan, inor ez zegoen sagu eder hura egoera hartan uzteko prest. Pertsona batek bere jertsearekin goxo-goxo bildu eta etxera eraman baino lehen, izena jartzeari ekin genion. Ez genuen denbora asko pasa; bazuen halako xarma eta hain zen lasaia! XIMI izena jarri genion. Aspaldiko lagunak izango bagina bezala sentitzen ginen.

Hurrengo egunetan, eta lagun horren etxean, ondo mantenduz, bere begirada sakon hura pizten saiatu behar genuen. Eguna joan eta eguna etorri, konturatzen ginen, oso gutxi jateaz gain, animoz eta ilusioz, gainbehera ikaragarria egiten ari zela. Hori gutxi balitz, sukaldeko leihoan jarri eta handik mugitu ere egin gabe egoten zen egun osoan, negar malkoz aritzen zen kalera begira, ez zuen nahi gurekin jolastu ere egin.

Zergatik zegoen horrela, eta zergatik ez zen leiho hartatik mugitu ere egiten? Halako batean konturatu ginen gutako batek bere aurrean hitz egin zuenean.

-Nazkatu nauk, egun osoa mendi santu horri begira zagok!

Eta segituan beste lagunak:

-Eta orduan, hori balitz arrazoia? alegia, San Anton mendia bere ama balitz bezala sentituko balu?

Hori esan eta Ximik guri begiratzea bat izan ziren, eta ulertu genuen zein zen bere egon lekua edo etxea. Une hartan lehendabiziko aldiz, begi busti haiek distiratsu jarri ondoren, denok batera esan genuen "XIMIREN XARMA", oso berezia baitzen.

Berriro ere lehenbailehen beso artean hartu eta San Anton mendira eraman genuen. Behin goian geundela, eta lurrean utzi ondoren, ziztu bizian hasi zen korrika, leku haiek ezagutuko balitu bezala. Ezkutatu baino lehen, gelditu eta azken begirada zuzendu zigun. Eskuekin agur egin genion eta pozez beteriko malko bat edo beste ere erori zitzaion bati lurrera. Gustura geratu ginen. Orain etxean elkartzen garenean geuk pasatzen ditugu orduak, kontu kontari, leiho ondoan, eta San Anton mendiari begira.

Ximi ez dugu gehiago ikusi, baina badakigu zoriontsu ibiliko dela lagunekin, familiarekin edo ez dakigu norekin, baina hori bai, San Anton mendiaren babesean.

## Ixabel Isasti :

# "Antxoak lan handia eta zikina du"

**Ixabel Isastik 85 urte ditu eta Getarian bizi izan da beti. Hiru semeren ama izanik, gogor egin du lan bizi osoan; lehenik beste lantegi batzuetan eta, gero, familiarekin sortutako lantegian. Horregatik, merezitako atsedenaz gozatzeko garaia du. Hala ere, kosta egiten zaio geldirik egotea.**

Ixabel gaztea zenean, jendea goiz hasten zen lanean; garai haiek horretara behartzen baitzuen herriko jendea. Mutil kozkorrak itsasora joan ohi ziren gehienetan; neska gazte asko, berriz, lehorrean gelditu arren, arrantzari lotutako lanetan hasten ziren. Ixabel Alegriatarren antxoa-lantegian hasi zen lanean 15 urterekin: "antxoari burua kentzen jarduten nuen". Gerora, Pio Gorostiagarekin ezkondu eta, denborarekin, euren antxoa-lantegia jarri zuten; lehen, Kale Nagusian eta, orain, Txori-Tonpeko pabiloitan: "gure seme Manueli asko gustatzen zitzaion antxoarekin lan egitea".

Antxoari burua kentzea ez dela zaila dio Ixabelek; baina, gauza guztiek bezala, denbora behar izaten da; bere hitzetan "antxoak lan handia eta zikina du". Dena den, egun, lehen baino erosoago egiten da lan; izan ere, urteak pasatzearekin batera, lan egiteko modua asko aldatu da; esaterako, garai batean zutik egiten zen lana, gaur, eserita egin daiteke.

Arrantzaleek harrapatutako antxoa portutik lantegietara eramateko gurdiak erabiltzen zituztela adierazi du Ixabelek: "Txurrotarrak eta Pion aitona ibiltzen ziren, beste batzuen artean, gurdian otarrak hartu eta batera eta bestera eramaten". Gerora, ordea, bakoitzak bere furgonetan garraiatzen zituen antxoa-kaxak.

Lantegira eramatean, antxoa tinetan sartu eta salmueran jartzen zuten. Emakumeak antxoari burua kendu ahala "kintetan", "kuartoetan" eta "tercerotan" sailkatzen zituzten, neurriaren arabera. Multzo txikiak egin ondoren, antxoak latetan sartzen hasten ziren, latak guztiz bete arte; "laten goiko aldean plastikozko lepoa jartzen genuen eta, ondo betetzean, zanpatu egiten zen". Ixabelek dioenez, garai batean eskuekin zanpatzen zuten eta nahiko lan astuna izaten zen; egun, ordea, tapasarekin berarekin egiten dute. Lata bakoitza bete eta itxi ondoren, behar zen lekuan

## "Kanpotik etortzen dira ia langile guztiak"

uzten zituzten; "pisua zutenez, lan neketsua izaten zen". Gerora, feminitza ekarri zuten, eta, geroztik, latak azkarrago eta erosoago jartzen dituzte beren lekuan. Hasiera batean, herriko emakume ugarik egiten zuten lan euren lantegian, zahar nahiz gazteak; baina, egun, ia ez dute getariarrik; "kanpotik etortzen dira ia langile guztiak".

Antxoaren prezioari dagokionez, asko garestitu dela esan digu Ixabelek: "lehen ez zen hain garestia; orain, lehen balio zuenaren bikoitza balio du". Aurten, gainera, arrantzaleek antxoa gutxi harrapatu dute, eta, ondorioz, are garestiagoa izan da. Horrez gain, antxoa gutxi harrapatzeak izan du eraginik Ixabelen etxekoen lantegian; izan ere, hemengoarekin nahikoa ez eta kanpotik ekarritakoarekin moldatu behar izan dute.

Antxoa-lantegiaz gain, edariak banatzen jarduten zuten; "edariak tabernetara eta banatzen genituen". Horregatik dio Ixabelek bizitzan lan asko egindakoa dela. Hala ere, ezin geldirik egon eta, oraindik ere gustura ibiltzen da bere lantxoak egiten.

Gabonak gainean izanik eta urteroko ohiturari jarraituz, Ixabelek dagoeneko jarri du jaiotza, bere etxeko txoko batean. Giroari dagokionez, gauzak guztiak bezala, asko aldatu dela dio; baina, orain ere, taldetxoa elkartzen dira eta pozik igarotzen ditu gabonak familiakoekin.

Gabonak gainean ditugu eta oraingoan ere Marixabelek errezeta erraz eta azkar egiteko moduko bat aurkeztu digu: Mazapanak. Ez da sukaldari trebea izan behar honako postre goxo hau prestatzeko; beraz, animatu zaitezte eta, bide batez, disfrutatu!

## Mazapanak

*Osagaiak:*

50 g. pinazi

250 g. azukre-hauts

limoi baten azala

300 g. almendra ehotu

50 g. patata egosi (hoztuta)

arrautza baten zuringoa

Egiteko modua:

Osagai guztiak ondo-ondo nahastu eta orea 12 bat orduz edukiko da. Ondoren, orearekin pilota txikiak egin eta arrautzetatik pasako dira. Beste ontzi batean pinaziak egin eta pilota txikiei gainean jarriko zaizkie. Azkenik, bukatzeko, pilotatxoak labean sartu, 180 gradutan, eta 8 bat minutuz edukiko dira. Gabon hauetako afalondoan, gozo-gozo jarriko gara!

## Etenaldia

Aspaldiko partez etenaldi txiki bat egitea erabaki dugu **gaztetxean**; alde batetik, Udalarekin adostuta, obra batzuk egingo baititugu lokalaren soinua hobetzeko aldera. Honek beharrezko geldiune bat suposatuko digu, pilak berriz ere kargatzeko ondo etorriko zaigulakoan. Eta nobedade handirik izan ezean, (nahiz eta azken uneko sorpresak beti izan ohi ditugun) berriki ospatu den **Durangoko Azoka**rako argitaratu diren hainbat lanen gomendioarekin natorkizue oraingo honetan; bide batez gainera, datozkigun egunetan opari gisa edonorren gustokoa izango direlakoan.

Lehenik eta behin, Euskal Herriko musika panoraman zeresana eman duten bi talderen ibilbidea laburbiltzen duten **dvd** formatuak .Batetik 80. hamarkadan **punk** mugimendua Euskal Herrian ulertzeko ezinbestekotzat dugun erreferentzia: **RIP** laukote arrasatearra. Talde honetako hildako bi kideri omenaldi gisa atera berri du **Hotsak** zigiluak lan hau eta erabat gomendagarria da bai nostalgikoentzat zein garai hura ezagutu ez dugunontzat ere. Zuzeneko indartsuak, elkarrizketak, argazkiak, argitaratu gabeko abestiak eta beste hainbat bitxikeria aurkituko ditugu dokumental honetan. Bestalde, Hondarribian 90.hamarkada hasieratik erdialdera iraun zuen eta herri honetan hainbeste maite eta entzun dugun **Beti Mugan** seikotearen **dvd**-a ere albiste da. Iazko uda partean bi kontzertu eskeintzeko berragertu zen taldea (Hondarribian eta Ondarroako Kafe Antzokian) eta bide batez bere ibilbidean esanguratsuenak izan diren abestiak jaso dituzte bertan.

Hauetaz gain beste hainbat gomendio: **Arean** eta **Aterkings** taldeak esate baterako. Arratiako hirukotea **rock** terminoaren zentzurik zabalenean koka dezakegu, erritmo geldo eta intentsitatez beteriko doinuetan oinarrituta. Markinan sortutako **Aterkings** boskoteak aldiz, **punk rocka** eta **garage** erritmoetan uztartutako hamasei abesti biltzen dituen lana plazaratu du.

Azkenik eta bukatzeko, aurkezpenik behar ez duen **Anari** azkoitiarraren "**Zebra**" hirugarren lana eta **Jon Eskisabel** kazetariak Euskal Herrian sekula egon den **pop** talde onenari, **Itoiz**-i, buruzko **"Hari xingle bat"** liburua ere biziki gomendatuko nizkizueke.

# ]urtarrileko agenda

## irteera

**Abenduak 28, asteazkena**
**EUSKADI-KAMERUN**
Euskal Selekzioa eta Kamerungo selekzioaren arteko partida San Mamesen
Irteera: 18:00etan
Antolatzailea: Gure Txeru

**Urtarrilak 21-22**
**LUZ ARDIDENera ESKI IRTEERA**
Izen-ematea eta informazio gehiago udaletxean

## Gabonak

**Urtarrilak 4, asteazkena**
**BIZAR ZURI**
Bizar zuri etorrik da haurren gutunak jasotzera
Ordua: 18:30ean

**Urtarrilak 5, osteguna**
**ERREGEEN KABALGATA**
Ordua: 18:30ean

## zinema

**Urtarrilak 15, 22 eta 29, igandeak**
Ordua: 17:00etan
Lekua: Herri Eskolako zinearetoa. Antolatzailea: Guraso Elkartea

## jardunaldiak

**Urtarrilaren 23tik 27ra**
**GETARIA ETA HIRUGARREN MUNDUA -XIII. JAURDUNALDINAK-**
Antolatzailea: ELAN Euskadi

## jaiak

**SAN ANTONAK 2006**

**Urtarrilak 15, igandea**
**III. SAN ANTON ZALDI LASTERKETA**
Ordua: 12:00etan

**GETARIAKO II. DANTZA SUELTO TXAPELKETA ETA BERTSO-JAIALDIA**
Izen-ematea eta informazio gehigo udaletxean.
Antolatzailea: Getariako Udala

**Urtarrilak 17, asteartea**
**SAN ANTON EGUNA**
**Txakolin-uzta berriaren aurkezpena, trikitilariak, bertsolariak, herri kirolak, musika...**

## kirolak

**Abenduak 27, ostirala**
**ARETO FUTBOLA: Irizabal Arrainak - A. P. Pasaia**
Ordua: 21:30ean
Lekua: Kiroldegian

**Urtarrilak 13, ostirala**
**ARETO FUTBOLA: Irizabal Arrainak - Inter Intxaurrondo**
Ordua: 21:30ean
Lekua: kiroldegia

**Urtarrilak 14, larunbata**
**PADEL TXAPELKETAKO FINALA**
Ordua: 10:00etan
Lekua: Kiroldegian
Antolatzaikea: Sahatsaga kiroldegia

## Ospakizunak

**Urtarrilak 8, igandea**
**URTEAN HIL DIREN PENTSIONISTA ETA JUBILATUEN ALDEKO MEZA.**
Ordua: 11:00etan
**ONDOREN, HAMAIKETAKO.**
Lekua: Elkartean
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea

## KZgunea

Urtarrileko ordutegia: Urtarrilaren 9tik 31ra 17:00etatik 20:00etara.
Tutoreren abenduko bisitak: abenduak 3, 10, 17, 24 eta 31. 16:00etatik 20:00
**URTARRILEKO MINTEGIAK:**

**Urtarrilak 3, asteartea**
*EUSTAT (17:00 - 19:00)*

**Urtarrilak 10, asteartea**
*Ezagutu ardoa (17:00 - 19:00)*

**Urtarrilak 17, astearte**
*Mikologia - Iberdrola (17:00 - 19:00)*

**Urtarrilak 24, asteartea**
*Euskal Nekazaritza mundua (17:00 - 19:00)*

**Urtarrilak 24, asteartea**
*Parte har ezazu sarean (17:00 - 18:00)* Lekua: Kultur Etxeko lehen solairuan.

**FULDAIN farmaziaren zaintzako goardiak: urtarrilaren 3tik 9ra**

**San Anton festak 2006**

**Txakolin uzta berriaren dastaketa**
**Herri kirolak**
**Bertsolariak**
**Dantza suelto txapelketa**
**Padel-squash txapelketako finala**
**musika**

### Telefono interesgarriak

Udal bulegoa.....943 896024
Faxa .....943 140190
e-mail:udala@getaria.org
Kiroldegia.....943 140432
Kirol-portua .....943 580959
Taxiak
Segundo .....607 720242
Jose Mari.....607 403495
Udaltzaingoa ....943 896146
Liburutegia .....943 896147
Anbulatorioa.....943 140653
Botika .....943 140441
SOSdeiak .....112
Kofradia.....943 140 200
Eguneko zentroa943 140616

**artzape** aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

# Guda Zibileko Gabonak: Erregetako opariak jasotzen

Maria Jesus Aizpuruk utzitako argazkia

**Guda Zibila zela eta,** herriko zenbait gizonek beren emazte eta seme-alabak utzi eta, soldadu joan beste erremediorik ez zuten izan. Normala den bezala, urteko egun seinalatuetan asko gogoratzen ziren etxean utzitako familiaz. Argazki hau, 1939. urte ingurukoa da eta une hartan, aita eta senar ziren gizon haiek retaguardian zeuden etxera etortzeko inolako aukerarik gabe. Haur hauen zoriontasuna lortzeko asmoz, Diputazioak zenbait opari eman zizkien. Aitaren presentzirik gabeko Gabon haiek hain gogorrak izan ez zitezen.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Ageda Bordagarai, Maria Pilar Aranburu, Sabin Lazkano, Juan Arruti, Xixili Zubizarreta, Maria Jesus Aizpuru, Gloria Andreano, Narzisa, Maria Pilar eta hauen hirugarren ahizpa, eta argazkiaren eskuinean dagoen emakumea Mari Carmen Lopez da. Beheko ilaran, berriz: Teresa Aranburu, Jose Mari Arruti, Estanis Aizpuru, Jose Angel Andonegi, Felipe Andonegi, Primitibo Lekube, Donato Andonegi, Joakin Aizpuru eta Ana Mari Arruti.

## zorion agurrak

**Liher Perez**
**Urtarrilak 1**
Zorionak eta egun zoriontsua pasa zure 3. urtebetetzean. Ama eta aita.

**Iker Azkue**
**Urtarrilak 5**
Zorionak eta egun eder bat pasa dezazula! Etxekoen partetik.

**Josu eta Ibai Eizagirre**
**Urtarrilak 10**
Zorionak bioi familia guztiaren partetik. Muxu pilo bat eta ondo pasatu eguna.

**Saioa Martinez de Lahidalga**
**Abenduak 22**
Zorionak Saioa! Ondo pasatuko zenuelakoan 10. urtebetetzean. Muxu handi bat denon partez.

**Agurtzane Uzin**
**Urtarrilak 11**
30 muxu potolo etxeko denon partetik. Ondo pasatu egun!

**Gorka Larrañaga**
**Urtarrilak 16**
Zorionak etu urte askotarako. Jesaiñuko jator eta denon lagun onain urte bezala. Muxuak.

**Ainhoa Camio**
**Urtarrilak 7**
Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez. Egun on bat pasa dezazula!

**Luken Vidal**
**Urtarrilak 8**
Zorionak txapeldun! 6 muxu handi maite zaitugunon partetik, bereziki, Jone, aita eta amatxoen partetik.

**Ainhoa Alberdi**
**Urtarrilak 25**
Zorionak eta ondo pasa egunal Muxu handi bat familiaren partez

**Leire Aldalur**
**Urtarrilak 7**
Zorionak eta7 muxu handi etxeko printzesarentzat

**Ander Irigoien**
**Urtarrilak 10**
Zorionak gure etxeko mutil koskorrari. Xabier, aita eta ama.

Norbait zoriondu nahi izanez gero argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edota Eskualtxetara eramanl. Bazkideek doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue hemendik aurrera argazki bakoitzagatik

URTE BERRI ON!
2006
PEIO
2006
URTE BERRION